

286. zk.

Bigarren aroa

Urriak 1  
2016

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Erreportajea

Ri8era ekimena

4-5. orrialdeetan



## Kirolak

18. Txingudi Korrika

9. orrialdean



## Santiagotarrak Kirol Elkartea saritu dute

3 **Elkarrizketa** Antxeta Irratiko programazio berria.

6 **Caser Betharram**

7 **Erreportajea** Emaus

8 **Kirolak** Irungo Kirolaren festa

10 **Elkarrizketa** Gorka Gil psikologoa

11 **Haurren Leihoa** Lekaenea LH2

12 **Gazteen Lanak** San Vicente de Paul LH3

13 **Gaztea** Eskola Kirola

14 **Gazte infor**

15 **Agenda**



## Tartufa

jostailu denda



**Hondarribia**

Mitxel Arzu 1

943.55.87.97



**Irun**

Fermin Calbetón 15 943.63.06.73

- ✗ Segurua
- ✗ Eraginkorra
- ✗ Erosoa
- ✗ Didaktikoa
- ✗ Dibertigarria
- ✗ Magikoa
- ✗ Ekologikoa
- ✗ Bakarria
- ✗ Biologikoa

## Argazki lehiaketa



### Maite Mendizabal

Azken loreak udazkena iritsi baino lehen.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: [jarozena@irunero.com](mailto:jarozena@irunero.com)

## Irun atzo Irun gaur

IUA: 43423

### Puiana Hiribidea



Goiko argazkian Puiana auzoa 1990 hamarkadan eraiki baino lehen ikus dezakegu. Puiana Hiribidea auzoko kale nagusia da, eta L.U.K.T.ren proposamenez jarri zioten izena, 1992ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran.

Anaka auzoko urbanizazio berriaren zati handiena identifikatzen duen toponimoa, orain dela zenbait urte leku berean zegoen baserriaren izena da.

1957ko lurralde eta ganadu aberastasun egoerari buruzko dokumentazioan, baserri horren garrantzia ikus daitake, izan ere, 16 anega gari, 40 anega arto, 2 anega babarrun eta 6 karga

sagardo ekoizten baitzuen. Gainera zerri eta txahal bana, eta bina behi eta idi zeuzkan.

1861eko Lurralde Egoeran ikusten da baserria bi puskatan zatiturik zegoela, eta bertako jabe eta bizilagunak Patricio Zapirain eta Ascensio Ausan zirela. Urteko errenta aitortenean 870 eta 1.030 erreal deklaratzeko zituzten, hurrenez hurren.

Iturria: José Monje.  
Irungo kaleen izenak.

### Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

### Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

[amaiaterrazasruiz@gmail.com](mailto:amaiaterrazasruiz@gmail.com)

### Ion Otxoa

[ion@943sansebastian.com](mailto:ion@943sansebastian.com)

### Argitaratzailea:

837 comunicación y

publicidad S.L.

ISSN: 1134-0606

### Lege gordailua:

SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11  
IRUN  
943-61-54-57

TABISA  
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49  
HONDARRIBIA  
943-64-54-57



**BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN**



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Wazozaragoria de Politika Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

**AITZIBER ZAPIRAIN, Antxeta Irratiko koordinatzailea:**

## “Uste baino entzule gehiago ditugula konturatu gara”

Hamabosgarren urteurrena bete du Antxeta Irratiak 2016an. Uda pasata, ordea, ospakizunak alde batera utzi eta 2016-2017 ikasturteko lanari ekin dio buru-belarri. Berritasunekin dator Antxeta, bai programazioan, baita arlo ezberdinetan garatu ohi dituen proiektuetan ere. Gainera, frekuentzia legala du jada Gipuzkoan (105.8 FM), eta Oarsoaldean, Donostialdean eta Buruntzaldean ere entzun daiteke.

Duela lau urte Eusko Jaurlaritzak zabalduko irrati lizentzien lehiaketan, Donostian eta inguruan emititzeko baimena lortu zuen Antxetak, baina bertan behera utzi zuen lehiaketa garaiko lehendakariak, baita ondorengoak ere. Epaitegietara jo zuen Antxetak, eta Espainiako Auzitegi Gorenak irratia alderatu eta epaia eman zuen. Gai horien guztien inguruan aritu da Aitziber Zapirain Antxeta Irratiko koordinatzailea.



### **Zein balorazio egin duzue hamabosgarren urteurrenako ospakizunen inguruan?**

Ezin izan genuen urteurrena guk nahi adina garatu, hainbat faktore tarteko. Baina azkenean, balio izan digu ikus-teko irrati noraino iristen den, eta gure lau lan ildoak zenbateraino garatuak ditugun (euskara, berdintasuna, aniztasuna eta eskualdearen kohesioa). Lauak landu genituen kanpainan zehar, eta oso pozik gelditu ginen, adibidez, topaketa gastronomikoekin. Oso parte hartzaileak izan ziren.

### **Noraino heltzen da irrati? Zein ondorio atera duzue?**

Guk uste baino entzule gehiago ditugula konturatu gara. Eskualdeko udal hauteskundeak oso gertutik eta kaletik jarraitu izanak lagundu digu entzuleak erakartzen. Jendeak badu bere eremuko informazioaren gosea, eta hori da, hain zuzen ere, guk jasotzen duguna. Askotan iruditzen zaigu oso txikiak garela, eta gure buruari galdetzen diogu ea nork entzungo ote gaituen. Baina pixkanaka ikusten dugu baietz, entzuleak baditugula eskualde osoan.

Gero, egia da hitzorduak antolatzerako momentuan, falta zaigula gure entzuleak zuzenago gonbidatzea, guk antolatzen ditugun hitzorduetara erakartzea. Kontuan hartu behar da jendeari gero eta gehiago kostatzen zaiola mahai-inguruetara, hitzaldietara edo bestelako jardueretara gerturatzea. Gogoeta egin behar dugu horren inguruan.

### **Ikasturte berriari ekin diozue. Zein berrikuntza dago programazioan?**

Zorioneko gaude, besteak beste, berdintasunaren arloan erreferente izan diren bi emankizun itzuli direlako. Gonenkin Ero Bero bi aste behin izango da, astearte gauean, 22:00etan. Amapola Morea ere bueltatuko da, eta asteazkenetan 22:00etan izango da, bi aste behin. Punk musikari buruzko Bidasoa Attak emankizuna ostegunetan 22:00etan izango da, bi aste behin. Horiek izango dira berrikuntzak. Kolaborazioak egingo dituzten kronikalari berriak ere baditugu, kulturgintzan, musikagintzan, iritzia ematen etab.

Euskal Irratietan, orokorrean, laguntzaileen sarea dezentente handitu dugu aurten, eta nahi gabe izan da ia. Jendearen atzetik ibili ohi gara normalean. Baina batzuk gosez bueltatzen dira, mikrofonoaren edo espazio honen

gosez. Bere adikzio puntua du irratiak, eta hori oso pozgarria da.

### **Web gunea berritu duzue. Aurrera pauso bat da interneteko presentziari dagokionez?**

Antxetamedia.eus-era pasa gara. Berritu egin dugu, aurrekoa nahiko zaharkituta zegoelako, bai irudi aldetik, baita barne egiturari dagokionez ere. Gisa elkarteak egin digu, eta uste dut freskoa, txukuna eta dinamikoa dela. Egunero elikatuko dugula azpimarratu beharra dago.

Hala ere, nire buruari beti galdetzen diot ea non dagoen muga. Gu irrati bat gara, eta alde horretatik, ez naiz eduki guztiak sarean eskegitzearen aldekoa. Uste dut web guneak jendea irrati entzutea erakarri behar duela. Aldi berean, egia da, gaur egungo dinamikan, ematen duela interneten jartzen ez dena ez dela existitzen. Hausnarketa bat egin beharra dago web gunearen eta sare sozialen erabilerari buruz.

### **Eguneroko jardunaz gainera, eragile zarete arlo askotan. Zer duzue aurten esku artean?**

Hainbat proiektu ditugu urtea amaitu baino lehen bukatzeko, gai ezberdinen inguruan: berdintasuna, etorkinak, memoria historikoa, eta lankidetzaren eskualdeko beste hedabideekin.

Proiektu komuna aurkeztuko dugu Antxeta Irratiak, Iruenero aldirikariak, Txingudi Online hedabide digitalak eta Oarsobidasoko Hitzak. Zorionez, euskal hedabide bat

baino gehiago dago eskualdean. Bakoitzak bere esparrua eta lan ereduak ditu, baina horrek ez du esan nahi elkarlan bat egon ezin denik. Gure ideia da hilabete behin elkarriketa edo mahai inguru bat egitea elkarrekin. Apustua da denontzat, Euskal Herrian ez baitaude halako ekimen asko.

### **Nola uste duzue hartuko duela jendeak?**

Elkarriketatuak ohituta daude kazetari bakar baten galderak erantzutea. Elkarriketa horietan hiru edo lau kazetari egongo dira, bakoitza bere estiloarekin eta lan egiteko moduarekin. Berritasunak beti dira ongi etorriak, eta gaur egun, hedabideok, kontsumituak izaten segitzeko freskotasuna eskaini behar dugu. Monotoniaz aspertu egiten da jendea.

### **Frekuentzia legala lortu duzue behingoz Gipuzkoan, eta Antxeta Irratia Bidasotik Buruntzaldera entzun daiteke orain. Aukera ederra zabaltzen du, ezta?**

Bai, hasteko, irrati euskaldun bat gehiago egongo delako dialean. Zoritxarrez ez baitira asko. Euskarazkoa izateaz gain, Antxeta irrati komunitarioa da, eta horrek esan nahi du komunitatearekin lan egingo dugula. Prozesu polit bat irekitzen zaigu, baina argi dugu pazientzia handia beharko dugula. Behe Bidasoan lortu duguna, hamabost urteko ibilbidean egin dugu. Beraz, eremu zabal horretan poliki-poliki joan beharko dugu. Momentuz, Ipar Euskal Herriko informazioaren bozgorailu izango gara Hegoaldean.

**Olaizola**

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
 info@inmobiliariaolaizola.com  
 www.inmobiliariaolaizola.com

# Artea eta historia lotu dituzte

*Ri8era ekimena antolatu dute Irungo Udalak eta Bitamine faktoriak*

Historiaren gaiari alde eta ikuspegi ezberdinetatik heltzea badago. Artea ere bidelagun aproposa izan daiteke, askotan, gertatutakoa gogoratzeko eta hiritarren artean modu erakar-garri batean zabaltzeko. Ideia horrekin antolatu du Irungo Udalak Ri8era ekimenaren lehen edizioa. Bitamine Faktoria artisten kolektiboak hartu du bere gain proiektuaren kudeaketa.



## Bidasoa pintura eta dekorazioa

- ✓ Gremioen koordinazioa eta erreformak
- ✓ Lakatzea eta bernitzatzea
- ✓ Bainuontzien esmaltatzea
- ✓ Pintura orokorrean



943 63 11 58  
619 889 723

Facebook: pinturasbidasoairun  
pinturasbidasoairun@gmail.com





Irailaren 24an egin dute Ri8eraren lehen edizioa. Hamarretik gora izan dira parte hartu duten artistak, eta diziplina ezberdinak landu dituzte. Haien sorkuntzak Etorbidearen zubian eta haren inguruan erakutsi dituzte. Historiaz eta memoriaz gainera, beste kontzeptu bat gehitu nahi izan diote koktelari, inspirazio gisa balio zezan: ibaia.

“Hainbeste maite dugun Bidasoa ibaia”, zehaztu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak. Muga-aren gaia ere erabili dute artistek haien adierazpenetan. Egun

osoan zehar egon dira artearekin lotutako jarduerak Etorbidearen zubiaren inguruan: interbentzio artistikoak, taillerak, antzerkiak, karaokea etab.

Jeongosoo Lim artista salbuespena izan da Ri8beran parte hartu dutenen artean. Korearra da, eta arte egonaldi bat egiten ari da Irunen, Bitamine Faktoriaren bidez. Gainerakoak, tokiko artistak

izan dira. Aloña Zubizarretak eta Maider Likonak, Javier San Martin Shaf-ekin batera, *Palabra de muga* interbentzioa egin dute. Alde batetik, hiru hitz idatzi dituzte lurrian, egur oholen gainean: maitasuna, muga eta gorrotoa. Soinuak ere jarri dizkiete. Likonak azaldu du sistema: “Hiru puntu lotu ditugu laser

bidez. Argi hori mozten denean, soinu bat entzuten da. Horrela, hitzekin identifikatzen diren soinuak entzuten dira, hitzen ondoan pasatzerakoan”.

Interbentzioaren beste adarra, zubitik zintzilik egon da. Po-

liespanez egindako 100 zenbaki handia eskegi dute, kanabera batzuekin zintzilik. “Ehun urte bete ditu zubiak”, gogorarazi du Aloña Zubizarretak. Adierazpen artistikoak historiari buruz hitz egiteko modu aproposa direla uste dute, arreta erakarri eta interesa pizten dutela. Zubizarretak baieztatu du jende asko hurbildu zaiela, interbentzioaren

bidez zer irudikatu nahi zuten galdetuzera: “Jende gaztea etorri zaigu, eta adineko asko ere bai. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta baita ingelesez ere. Dene-tarik eduki dugu”.

Bitamine faktoriaren bidez ezagutu dute elkar, lan talde berezia osatzeko. Maider Likona informatika arloko teknikaria da,

eta Aloña Zubizarreta, berriz, Kunsthalen ikaslea. “Mundu ezberdinetatik gatoz, baina oso ondo moldatu gara”, adierazi du Maider Likonak. Artisten artean loturak sortzeko

Bitaminek egiten duen lana ere azpimarratu du: “Bakoitzak bere kabuz etxean lan egin beharrean, elkar-trukea sustatzea eta zer sor daitekeen ikustea oso interesgarria da”.

#### Proiektu zabalagoa izango da

Egun bakarreko egitaraua baino gehiago izan nahi du Ri8era proiektuak. Izan ere, Etorbidearen zubiko ekimenean parte hartu duten artistek haien proposamenak aurrera eramateko prozesuak azal-

duko dituzte, urriaren 6an, arratsaldean, Carlos Blanco Aguinaga kultur gunean. Judas Arrieta artista hondarribiarrak ere parte hartuko du, sanmartzialetan kalean osatu zuen margolanaren prozesua azalduz. Doakoa izango da CBAko saioa, eta interesa duen edonor hurbil daiteke. Aurrerago, hitzordu gehiago egongo di-

rela aipatu du Aloña Zubizarretak: “Urte osoko dinamika izango da Ri8era”.

Ri8era bekak ere martxan jarri ditu Irungo Udalak, ibaia, muga

eta memoria historikoa lotuko dituen sorkuntza artistikoa sustatzeko asmoz. Tokiko artistak harremanetan jarri nahi dituzte historialariek, antropologoekin, soziologoekin eta hezkuntzaren arloko profesionalekin. 9.000 euroko bi beka emango dituzte, 9 hilabeteko iraupena izango dutenak. Beken ondorio izaten diren bi proposamen artistikoek 2017ko Ri8eran parte hartuko dute.

“Bakoitzak bere kabuz etxean lan egin beharrean, elkar-trukea sustatzea eta zer sor daitekeen ikustea oso interesgarria da”

#### Maider Likona

“Urte osoko dinamika izango da Ri8era”  
Aloña Zubizarreta

Txingudi Onlinen eta Antxeta Irratian ere ikusi ahal izango duzu berri hau

Behere Bidasoan euskarazko informazio edukiak sustatzeko lankidetzaren proiektua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia diruz lagundua



## TUTORETZAPEKO APARTAMEN- TUAK CASER BETHARRAMEN

Caser Residencial Betharram-en duela urte bete eskaintzen dituzten tutoretzapeko apartamentuetako erabiltzailea da Francisco Flores. Zerbitzu horri esker, erabiltzaileek bizimodu independentea izan dezakete, baina behar izanez gero, profesionalen laguntza dute eskura.



### **Zergatik erabaki zenuen Caserreko tutoretzapeko apartamentuetara etortzea?**

Etxe bat dut Hendaian, eta Behobian beste bat. Bihotzekoa eduki nuenean, eskailerak igotzea debekatu zidaten. Behobian eskailerak ditudanez, Hendaia joan nintzen. Arazoa da lagunak Behobian ditudala, eta urrun geratzen zitzaidala.

Alabak ikusi zuen iragarkia, eta apartamentua hartu zuen, galdetu gabe.

### **Azalduko diguzu nolakoa den zure apartamentua?**

Leku eroso da. Orain arte etxe handietan bizi izan naiz, eta hemen, batzuetan aspertu egiten naiz, azkar

jasotzen eta garbitzen baitut.

Egongela, bainugela, sukaldea, bulegoa eta logela handi bat ditu.

### **Zeintzuk dira zure zaletasunak?**

Lorezaintza egin izan dut beti. Nire beste zaletasuna, sukaldaritza da. Familia osoarentzat sukaldatzen dut astero, seme-alabetako baten etxean.

### **Zein da hoberen prestatzen duzun platera?**

Arrainak oso ondo gelditzen zaizkit. Aste honetan paella egingo dut familiarentzat. Niretzat, baserriko oilaskoa eskabetxean prestatuko dut, aste osorako. Orokorrean asko gustatzen zait sukaldaritza.

### **Zer esango zenioke tutoretzapeko**

### **apartamentuak ezagutzen ez dituen norbaiti?**

Seme-alabak konprometitu gabe bizimodu independentea izan nahi duenarentzat bikainak dira.

Gogoratzen dut, duela zenbait urte antzeko zeribaiti buruzko erreportajea ikusi nuela, eta interesgarria iruditu zitzaidala.

Egia esan, oso gustura nago. Inori enbarazu egin gabe independente izan nahi dutenentzat ezin hobekak dira apartamentuak.

# Berreskuratu eta eraberritu

Altzarien zaharberritze tailerrak eskaini ditu Irungo Emausek



Emaus Plaza bilakatuko da Zabaltza, urriaren lehenan. Emaus Gizarte Fundazioaren berri emango dute bertan, eta Irungo EkoCenterren aurrera eramaten dituzten jarduerak plazaratuko dituzte. Udaran zehar, altzariak zaharberritzeko eta berrerabiltzeko tailerrak eskaini dituzte, eta haien fruituen erakusketa egingo dute, besteak beste. Emausen filosofia eta lan ildoak ezagutzeko aukera aproposa izan daiteke.

Hamabi neska-mutil formatu zituzten Irungo EkoCenterren, joan den ikasturtean zehar, altzarien zaharberritzearen arloan. 18 eta 30 urte arteko gazteak ziren, bazterketa arriskuan zeudenak, edo lan merkatuan murgiltzeko arazoak zituztenak. Horietako bi kontratatu dituzte ondoren, udaran altzariak berreskuratzeko tailer irekiak eskaintzeko. Irungo Udalak Aurrekontu Parte Hartzaileetan onartutako 40.000 euroko ekarpena egin du ekimen horretarako.

Ekainetik irailera, altzariak berreskuratzeko hainbat modu landu dituzte tailerretan: zaharberritze klasikoa, altzarien transformazioa, sormen dekorazioa etab. Ezberdinak izan badira ere, tailer guztiek helburu nagusi bera izan dutela azaldu du Sara Sánchez hezitzailea: "Asmoa izan da erakustea altzari eta objektu zaharrek eskaintzen dituzten aukerak. Bota beharrez, eta teknika profesionalik gabe, haien bizitza luza dezakegula". Gainera, taldean lan eginez, oso ondo pasa daitekeela azpimarratu du Manu Mendez Emauseko hezkuntza teknikariak.

## Parte hartzaileen profila

Sormen dekorazioan lanean ari da Aurora

Agirre. Komuneko paperaren kartoiarekin eta arrautz-ontzi batzuekin, lanpara bat egiten ari da. "Sinestezina da askotan zein gauza botatzen ditugun. Ia edozer aprobetxatu daiteke", adierazi du. Palet batzuekin sofa bat egin zuen joan den astean, transformazio tailerreko kideekin. Hurrengoan, zaharberritze klasikoan, etxeko zoko batean duen kutxa zahar bat eraberrituko du: "Bakarrik ezingo nuke egin, baina taldean, eta Sararen laguntzaz, errazagoa izango da".

Agirrek betetzen ditu tailerretara hurbildu den jendearen profil nagusiaren ezaugarriak. Emakumeak izan dira gehienak, aldezturik birziklatzearekin edo zaharberritzearekin harremana izandakoak edo nolabaiteko ezagutza zutenak. Aurora Aguirrek aitortu du etxean maiz egiten dituela eskulana.

Gainera, zaharberritzearekin lotutako beste ikastaroetara joan izan dela: "Goizetan lan egiten dut, arratsaldeak libre izaten ditut eta horrelako ikastaroetan parte hartzea gustuko dut". Ezagutza horiek elkarbanatzea oso aberasgarria izan dela baieztatu du Sara Sánchezek. Erretiroduinak edo langabeak ere asko izan dira parte hartzaileen artean.

## Bigarren aukerak

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Frantzia sortutako mugimendu batean du jatorria Emaus Gizarte Fundazioak. "Mundu osoan zehar daude orain Emaus taldeak. Denek duten harremana da behar gehien dutenei, edo bazterketa arriskuan daudenei laguntzeko helburua", azaldu du Manu Mendezek. Urteen poderioz bilakaera izan du Emausek, eta gaur egun, lan ildo ezberdinak dituzte. Batetik, enpresa solidarioa dago. Altzariak, arropa eta bestelako objektuak berreskuratu, behar izanez gero eraberritu, eta merke saltzen dituzte. Gainera, langileen %70 bazterketa arriskuan dauden kolektibotik eratorriak dira. "Horregatik hitz egiten dugu bigarren aukerei buruz", zehaztu du Mendezek.

Hezkuntza ere lantzen ari dira, jendea sentsibilizatzeko asmoz. Gizartea eraldatzeko benetako tresna dela uste du Manu Mendezek: "Saltzen digute krisi ekonomikotik ateratzeko modu bakarra dela kont-

sumoa areagotzea, kontsumoa sustatzea. Guk guztiz kontrakoa aldarrikatzen dugu: beste kontsumo mota bat posible dela, pertsonak izan behar duela erdi gunea, eta orain arte izan dugun eredu birplanteatu behar dugula". Kontsumismoaren alternatiba izan nahi duen eredu proposatzen du, beraz, Emausek.

"Aldarrikatzen duguna da beste kontsumo mota bat posible dela, eta orain arte izan dugun eredu birplanteatu behar dugula"  
**Manu Mendez, Emauseko hezkuntza teknikaria**

## Santiagotarrak Kirol Elkartea saritu dute

Irungo Elkarte onena izan da, 50.urteurrenean



Santiagotarrak Kirol Elkartea izan da protagonista 2016ko Irungo Kirolaren Sarietan. Elkarte onenaren saria jaso du. Gainera, klubeko Olatz Zabalak eta Ander Elosegik jaso dituzte kirolari onenen sariak, emakumezkoen eta gizonezkoen atalean, hurrenez hurren. Zabaltza plazan egin zuten sari banaketa, irailaren 18an, Mugikortasunaren Astearen baitan prestatu zuten Igande Sasoi bereziari amaiera emateko. Ekitaldi laburra eta xumea izan zen. Jende dezente bildu zen, hala ere, Zabaltza plazan. Goiz osoan zehar kirol jarduerak eskaini zituzten hiriko elkarteek Colon ibilbidean. 13:00ean, sarituak banaka deitu zituzten, pista argi batzuk emanaz.

rrartzeko modukoa da osatu duen ibilbidea. Hiru aldiz izan da finalista Olinpiar Jokoetan, Pekinen, Londresen eta Rion. Nabarmendu, era berean, brontzeko domina jantzi duela aurtan Eslovakian jokaturako Europako Txapelketan.

Santiagotarrak Kirol Elkarteko piraguitak dira Zabala eta Elosegik, eta haien kluba izendatu dute, hain zuzen, urteko elkarte hoberen. 50.urteurrena ospatzen ari da aurtan, eta aitortpena jasotzea "amaiera bikaina" emateko modua izan dela baieztatu du Olatz Zabalak. Antxon Arellano presidente-ordeak jaso du oroigarria, baina Zabalak hartu du hitza: "Eskerrik asko bozka eman diguzuenoi". Irungo kirol elkarteek erabaki dute botoen bidez, urteko kirolari eta klub onenak zeintzuk izan diren. Hori baloratu du, bereziki Olatz Zabalak. Ondoren, elkarteko hainbat neska-mutil hurbildu dira kioskoko eskailetara, Queen taldearen "We are the champions" abestiaren erritmoan, argazkia ateratzeko.

Olatz Zabala izan zen kioskora igotzen lehena. Santiagotarrak Kirol Elkarteko presidente gisa ere igo zitekeen, baina nahikoa merezimendu egin du piraguita gisa, saritua izateko. Bigarren izan da Ibaietako eta Zeharkaldietako Espainiako Kopan K1ean, Bidasoko Nazioarteko Jaitsieraren 50.edizioa irabazi du K1ean, eta Sellako Nazioarteko Jaitsiera famatuan ere, garaipena lortu du, K2an. Gizonezko kirolari onenaren saria Ander Elosegik ur bizietaiko palistak jaso du. Burumakur amaitu zuen Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetako finala, dominen lehiatik kanpo geratu baitzen. Hala ere, azpima-

**Emakumezko Kirolari Onena:** Olatz Zabala.

**Gizonezko Kirolari Onena:** Ander Elosegik.

**Kirol Elkarte Onena:** Santiagotarrak K.E.



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net) [www.k-stretch.com](http://www.k-stretch.com)

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640





## Adin nagusikoa da Txingudi Korrika

Hemezortzi urte bete ditu badiako hiru hiriak elkartzen dituen herri lasterketak



Heldua da jada Txingudi Korrika. Hemezortzigarren edizioa izango du aurren, eta nahikoa egonkortuta dago. Duela sei urte distantzia finkatu zutenetik, hamar kilometroko proba da, eta ia 800 parte hartzaile elkartzen ditu urtero. Aurten urriaren lehenean izango da, 16:30etan. Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko antolatzaileek Santiagotarrak Kirol Elkarteak omenduko dute, 50 urte bete dituela eta.

Proba berezia da Txingudi Korrika, badiako hiru hiriak lotzen dituelako. Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak antolatzen du, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoaren eta Hendaiako, Irungo eta Hondarribiko udalen babesarekin. Hendaiako tarterako, Urpean urpekaritza elkartearen laguntza izango du BATEk, iaz bezala. 40-50 laguntzaile mobilizatuko ditu Hendaiako elkarteak. Kirol Kaian egongo da irteera, Tribord dendaren parean. Bertara iristeko, hiru autobus jarriko ditu antolakuntzak helmugatik, 14:45, 15:00 eta 15:15ean. Irteeran, motxila jaso eta Hondarribira eramango dituen furgoneta egongo da. 16:20ean irtengo dira roller kirolariak, patinetan. 16:30etan emango diete irteera korrikalariei.

Guztira 800 parte hartzaileen muga gainditu nahi luke BATEk. Hamar kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta Hondarribira heldu aurretik, Hendaiara eta Irun zeharkatuko dituzte. Mendeluko biribilgunean, seigarren kilometroan, edariak banatuko dituzte. Erritmoa markatuko duten lau korrikalari egongo dira, bidean. Kilometro bakoitzeko 3:45, 4:00, 4:30 eta 5:00eko erritmoa eramango dute. Helmuga Hondarribiko atletismo pistan egongo da. "Korrikalariei gustatzen zaie azken metroak pistan egin ahal izatea", adierazi du Ibon Muñoz BATEko kirol zuzendariak.

Sariak lehen hamarrei, eta herri bakoitzeko onenei

emango dizkiete, emakumezkoetan eta gizonezkoetan. Parte hartzaile guztientzat, aldiz, edaria, eta janaria banatuko dituzte helmugan. Berritasun bat izango dela aipatu du Muñozek: "Aurren fruta emango dugu, jendeak azken edizioetan eskatu baitigu". Lasterketako kamiseta aldiz, aurtengoan ez dute helmugan emango, dortsala jasotzeko momentuan, baizik. Izen emateak internet bidez egin daitezke, kirolprobak.com eta pb-organisation.com web guneetan. Irungo Leire Sport eta Olamusu kirol dendetan, eta Hondarribiko Papycop-en ere egin daitezke. Txip horia dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta zuria alokatu behar dutenek, 14. Lasterketaren egunean 18 eurokoa izango da dortsalaren prezioa.

### Santiagotarrak K.E. omenduko dute

Kamiseta gorria izango da aurtengoa, Santiagotarrak Kirol Elkarteari keinua egingo baitio BATEk. 50 urte bete ditu ureko kiroletan dabilen klubak, eta urteurrenaren logoa eta idatzizko aipamena izango ditu kamisetak. Dorsalean ere agertuko dira. Antxon Arellano Santiagotarrak K.E.ko presidenteordeak baieztatu du ahalik eta jende gehien eramango dutela lasterketara. Buruhaute handirik ere ez dute izango, hala ere: "Gure kirolariek maite dute Txingudi Korrika, askotan parte hartzen dute. Denboraldi ha-

"Korrikalariei gustatzen zaie azken metroak pistan egin ahal izatea"  
Ibon Muñoz BATEko kirol zuzendaria

sieran izaten da, eta ondo datorkie pres-taketa gisa". Kanpaina berezia egiten ari dira, dena den, jendea animatu dadin. Bai nagusien proba, baita goizean egingo diren haurren lasterketetara ere.

Larunbat goizean izango da Txingudi Korrika Txikia, 10:00etan hasita, Stadium Galen inguruan. "Iaz egin genuen lehen edizioa, eta esperientzia positiboa izan zen. Beraz, jarraipena emango diogu", azaldu du Joseba Sarriegi BATEko kide beteranoak. Adin ezberdinetako haurrei zuzendutako lasterketak egongo dira, 14 guztira. Hamahiru urtera arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. Doakoa izango da parte hartzea, baina alde zuzenetik kirolprobak.com-en izena eman beharra dago.

"Gure kirolariek maite dute Txingudi Korrika, askotan parte hartzen dute"  
Antxon Arellano, Santiagotarrak K.E.ko presidenteordea



## ARGITZE ZENTROA

### ESTIMULAZIOA

- Narriadura kognitiboa galditzea demontzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan: iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostena

TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa

EKINTZAK: Lorezaintza tailerra, zineforuma, mahai-jokoak, esku-lanak eta abar



PSIKOLOGOEN  
ELKARGOKIDE  
Santiago, 51  
IRUN  
635 703055  
943 051227

**GORKA GIL, psikologoa:**

## “Makulu gisa erabiltzen dugu erretzea”

Urtearen amaieran bezala, udaren ondoren ere ohiturak hartzeko edo baztertzeko erronkei heltzen die jende askok. Erretzeari uztea izaten da nagusietako bat. AECC Minbiziaren Kontrako Elkarrekin banakako nahiz taldekako terapiak eskaintzen ditu, doan, Irunen duen egoitzan. Astelehen goizetan eta ostegun arratsaldetan bilduko dira taldeak, erronkari aurre egiteko. Gorka Gil psikologo irundarrak zuzenduko ditu terapiak.



“Lan psikologikoak eragina izan dezake mendekotasun fisikoan”

“Norberak bizi duen dramari, beste kutsu bat ematen dio taldekako lanak”

### **Minbiziaren artean, biriketakoak izango da ohikoenetako bat, eta arrazoi nagusia, tabakoa, ezta?**

Egia da, baina era berean, prebentzioan lan handia egin daiteke, beste kasu batzuetan baino gehiago. Beste minbizi batzuetan, prebentzioaren aldetik ez dago zeregin handirik. Biriketakoek gainera, ezarriko minbiziak edo ahoko minbiziak ere ekidin daitezke, erretzeari utzita.

### **Prebentzioa da, beraz, tailerren helburua nagusia?**

Bai. Guk Minbiziaren Aurkako Elkarrekin eskaintzen ditugun zerbitzu gehienak izaten dira minbiziaren duten edo eduki duten pazienteentzat, haien familientzat etab. Baina erretzearekin lotuta, egin daitezkeen lan gehienak prebentzioaren ingurukoa da. Gaixo dauden batzuk ere etortzen zaizkigu, medikuak erretzeari uzteko azken abisua eman dienean. Baina egoera horretara iristea, askoz lehenago saihestu daiteke.

### **Azken urteotan tabakoaren inguruko araudiak eta legeak aldatu dira. Horrek eragina izan du erretzeari uzteko helburuetan?**

Guri paziente zailenak geratu zaizkigu orain. Mendekotasun handirik ez zuten askok, lege berriei erretzeari utzi diote. Beste batzuek hausnarketa egin dute behintzat, eta kontsumoa murriztu dute. Baina gaur egungo traba guztiekin ere, erretzen jarraitzen dutenak, horienak dira kasu zailenak. Guretzat interes handiena dutenak ere bai. Laguntza gehien behar dutenak dira.

### **Denetarik hurbiltzen zaizue, beraz. Ez dago profil finko bat.**

Ez, eta horrek kutsu polita ematen dio taldeari. Kontrola galdu dutela ikusi duten gazteak daude, seme-alabak dituen jende heldua, sekula erretzeari uztea planteatu ez duen jendea, gaixoak etab. Kasuistika zabala da, baina arazoari aurre egiteko modua, azkenean, ez da oso ezberdina.

### **Zein neurritan esango zenuke dela arazo psikologikoa?**

Alde batetik, dependentsia fisikoa badago, hori ezin da ukatu. Harreman handia du, hala ere, alde psikologikoa-

rekin. Erretzen dutenek badakite hori. Jende batek pozik dagoenean erretzen du bakarrik, jai giroan. Beste batzuek triste daudenean, edo albiste txarrak jasotzen dituztenean. Azkenean, makulu gisa erabiltzen dugu erretzea, azkazalak hozkatzea edo jatea bezala. Makulu hori baztertzeko lana bai dela psikologikoa.

Tabakoak duen arazoa da, beharbada alde psikologikoa- ren eraginez hasten garela erretzen, baina azkenean mendekotasun fisikoa sortzen duela. Badago puntu bat non alde fisikoa psikologikoarekin elkartzen den. Kasu batzuetan alde fisikoa gutxi nabarmetzen da, beste batzuetan gehiago. Zoritxarrez, etortzen den jende gehienak pentsatzen du kontu psikologikoa dela, baina konturatzen da bi borroka dituela. Dena den, lan psikologikoak eragina izan dezake mendekotasun fisikoan.

### **Taldekako saioak eta bakarkakoak egiten dituzue. Oso ezberdinak dira?**

Taldeak oso alde onak ditu. Jendeak antzeko egoerak bizi dituela, edo gurea horren arraroa ez dela ikustea oso lagungarria izan daiteke. Norberak bizi duen drama horri beste kutsu bat ematen dio. Hala ere, betidanik egon izan da jendea taldean aritzeko zailtasunak dituenak. Bakarkako terapia pertsonalagoa da, bakoitzaren bizitzako alde zehatzetan sartzen garelako. Eragozpenak ere baditu, zure borroka bilakatzen delako. Zurea, eta zurea bakarrik. Zama handia izan daiteke hori.

### **Nolakoa da terapia? Zein da metodologia?**

Erreminta asko daude, baina psikologoei gehien gustatzen zaiguna, hitz egitea da. Hori horrela da, bai bakarkako terapiari, bai taldekakoari. Beste ikuspuntu batzuk ematen saiatzen gara. Erretzearen atzean zer egon daitezkeen, adibidez. Askotan esaten dugu gauzak automatikoak direla, nahi gabe egiten ditugula. Baina zigarroa erretzearen inguruan dagoenari begiratzen baldin badiogu, beharbada konturatuko gara badaudela arrazoi edo baldintza batzuk. Horretaz jabetzeko, kanpoko begirada bat edukitzea ona da. Antsietateari aurre egiteko zenbait es-

trategia ere ematen ditugu.

### **Zenbat saio egiten dituzue astean? Zenbat denbora ematen du jendeak normalean?**

Astean ordu bateko edo ordu eta erdiko saio bat egiten dugu. Bi aukera daude: astelehen goizetan, edo ostegun arratsaldetan. Jendeak, lanaren edo beste baldintzen arabera, nahiago duena aukera dezake. Erretzeari utzita ere, saioetara etortzen jarraitzen duen jendea dago. Beste batzuek nahiago dute utzi, eta aurrerago arazorik izanez gero, bueltatu. Norberaren baitan dago hori. Prozesu normal batek 2-3 hilabeteko iraupena izaten du, hamar saiokoa.

### **Denbora horretan jendeak erretzeari uzten dio?**

Bai. Normalean, saioetara etortzeko telefonoa hartu baldin baduzu, esan nahi du hausnarketa egin duzula. Hortik aurrera dena errazagoa da. Azkenean, kaletik askotan entzuten dugu erretzeari utziko diola esaten duen jendea. Urte hasierako ohiko asmoa ere izaten da. Baina urte zaharreko afari horretan, sukaldeko leihoan uestezko azken zigarroa erretzen ari direnen artean, hurrengo astean telefonoa hartzen duenak abantaila ikaragarria du besteekiko. Urrats handia da. Hitz egiteaz gainera, edo proposamena airera botatzeaz gainera, beste zerbait egin du.

**Izena emateko:**

943 630 115

irun@aecc.es

Foru kalea 4, 1.º gozkerria



## GU ERE ZIENTZIALARI!!



Bigarren zikloan  
esperimentuen munduan  
sartu gara zentzumenak  
eta gorputza ikasteko.



3.mailan soinuen  
kutxa egin dugu.  
Gelan ere telefono  
bat egin dugu.  
4.mailan berriz,  
giltzurriak nola  
lan egiten duen  
aztertu dugu.



**ZENBAT IKASI  
DUGUNI!**





### Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27  
943 635259  
IRUN  
J. M. Iparragirre  
kalea, 10 - behe 4  
IRUN  
652 777 360  
kettysacademy@gmail.com

**EGONALDIAK EEU** etako famillirekin



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

★ Hiru artzainak ★



★ Bazen behin, abenduaren 24 zen eta mundu osoa itxotzen zegoen urduri Gabonen etorrerari. Baina leku bat ez, herri bat Out izenakoa ez zuden urduri. Biztanleak bere etxean geratzen ziren argia itzalitarenkin eta herria isilik gelditzen zen. Jendea ez zekien zergatik Out herria isilik geratzen zen Gabonetan.

Abenduaren 25zen eta Out herria isilik zegoen. Bat-batean, hiru artzain agertu ziren herrian. Bat Melchor deitzen zen, bestea Gaspar, eta arkana, Baltasar. Hirurok ez zekiten zergatik abenduaren 25 egunean, dena isilik zegoen Out herrian. Bat-batean, Baltasarri idei bat amate zituzion: biztanleak eman.



# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959ko abuztua).  
Amari ikasi zion. Kanta bera abesten da Iru-  
ritan, M.G.E. andereak adierazi duenez.

(El Bidasoa, 1959-IX-12)

## Bat bi iru lau

Bat, bi, iru, láu,  
xardiña ta bakalau.

Bat, bi, iru, lau,  
xardiña, ta bakalau.

Bortz, sei, zazpi,  
ezkabiltza gaizki.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga  
Euskaraz, Irunen barrena.

15 Urte zurekin



ANTAXETA  
**IRRATIA**

90.5 / 89.7



DANZA  
**TATIANA**

MATRIKULA  
DOHAINIK

Deitu 943 61 48 89  
edo idatzi tationas@euskalnet.net

UDAN ERE,  
ASTINDU GORPUTZA!!!

Multi-Gym, Pilates,  
Sevillanak eta  
latindar erritmoak

TAILERRAK:

Defentsa pertsonala,  
makillajea, saltsa  
eta bachata

## Martxan da Eskola Kirola

### Urrian ekin diote kirol jarduerari Irungo ikastetxeetan

Irailean itzuli ziren haurrak eskolara, eta urriarekin batera hasiko dira eskolaz kanpoko jarduera gehienetan. Lehen Hezkuntzako haurren artean, Eskola Kirola programa da zabalduenetako bat. Irungo Udalaren eta hiriko ikastetxeen arteko elkarlanari esker, kirol diziplina ezberdinak probatzeko aukera dute 8 eta 12 urte arteko neska-mutilek.



Kirol jarduerarekin duten lehen harremana izango da haur gehienentzat. Eta harreman horren izaera, norabidea, eta iraupena baldintza ditzake Eskola Kirolak. Horregatik, Irungo Udalak bultzatzen dituen kirol programen artean "garrantzitsua" dela uste du Pedro Alegre Kirola arloko ordezkariak: "Oinarrizko kirola da, hastapeneko. Irungo etorkizuneko kirolaren zimendua". Oinarri hori sendoa izan dadin, kirolarekin harremana duten balioak transmititzeko helburua du programak. Hezten duen kirola leloa hautatu dute aurten. "Programa ez da zorrotza errendimenduari edo lehiari dagokionez. Inportanteena formazioa da", azpimarratu du Alegrek.

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko bostehundik gora haur ariko dira Eskola Kirolean. 40 talde baino gehiago osatuko dituzte, eta 30 kirol hezitzaile ariko dira haiekin. Uda-

lak kontratatutako enpresa batek kudeatuko du programa, Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiekin lankidetzan. Bakoitzean Eskola Kiroleko koordinatzaile bat egongo dela aipatu du Pedro Alegrek. Ikastetxeen inplikazioa azpimarratu du, bide batez: "Ezinbestekoa da zentroetan egiten duten lana".

#### Kirolak probatzeko aukera izango dute

Urrian hasi eta maiatzera arte, taldekako hiru kirol nagusi egingo dituzte: eskubaloia, saskibaloia eta futbola. Errugbia ere landuko dute, eta bakarkako beste hainbat kirol ere bai: tenisa, pala, pilota, atletismoa, igeriketa etab. Alegrek azaldu du asmoa dela haurrak goizegi espezializatu

daitezen saihestea: "Kirol ezberdinak probatu behar dituzte, eta aurrerago izango dute hautatzeko aukera". Taldekakoetan, elkarbizitzarekin lotutako balioak landuko

dituzte. Bakarkakoetan, norberaren burua ezagutzen eta aurkariarekiko errespetua edukitzen ikasiko dute, besteak beste.

Aniztasun funtzionala duten haurrek ere kirola egiteko aukera izango dute, Irungo Udalak Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioekin sinatu duen hitzarmenari esker. Iaz egin zuten lehen esperientzia, eta hogeita neska-mutil aritu ziren, talde ezberdinetan. "Bide horri eutsi nahi diogu, aniztasun funtzionala duten haurrek ere kirola egiteko eta beste haurrekin harremana edukitzeko aukera izan dezaten", aipatu du Alegrek. Bestalde, udal ordezkariak mezu berezia bidali nahi izan diete hirugarren zikloko neskei. 11-12 urteko nesken izen-emateen kopuruak behera egiten baitu, nabarmen. "Adin horretan hasten dira finkatzen bizitzako ohi-turak, eta uste dugu, horien artean kirola sustatzea ezinbestekoa dela", nabar-

mendu du Josune Gomez Euskara eta Gazteria arloko ordezkariak.

#### Euskara landuko dute

Eskola Kirola programako jarduera guztiak euskaraz burutuko dituzte. Hori da Irungo Udalaren eta ikastetxeen helburua, eta horretan ahaleginduko dira arduradunak eta monitorea. "Irungo errealitatean, eskolaz kanpo euskaraz aritzea zaila izaten da askotan", onartu du Josune Gomezek. Horregatik azpimarratu du programaren garrantzia: "Eskolatik kanpo euskara erabiltzeko aukera paregabea da. Gainera, euskara abarasteko bidea eman dezake, hiztegi teknikoarekin, esamolde bereziekin etab.". Euskararen erabilera txikitatik sustatzeko espazio egokia izan daiteke kirola.

"Eskolatik kanpo euskara erabiltzeko aukera paregabea da"  
**Josune Gomez, Euskara arloko ordezkaria**

"Programa ez da zorrotza errendimenduari edo lehiari dagokionez"

**Pedro Alegre, Kirola arloko ordezkaria**

## DBHKO IKASLEENTZAKO LA-GUNTZA. IRUNGO GURUTZE GORRIA

**Norentzat:** 13 eta 16 urte bitartekoentzat.

**Lekua:** Irungo Gurutze Gorria. Euskal Herria hiribidea, 14, behea, Irun.

**Izena emateko epea:** urriak 10 Ordutegia: astearte eta ostegunetan 17:30etatik 19:00etara.

**Izena emateko:** 943 62 11 62 telefonora deituz edo irun.sociales@cruzroja.es helbidera emaila bidaliz. Eta boluntario gisa parte hartzeko, deitu 943 62 11 62 telefonora edo bidali email bat [irun.sociales@cruzroja.es](mailto:irun.sociales@cruzroja.es) helbidera.



## HITZ EGIN ORAIN EDO ISILDU BETIKO

Bai, zuek, gazteok, orain aukera duzue!!!, Ba al duzue esatekorik? ... eta zuk, zer diozu? Zure iritzia ere balio du, zer falta zaio Iruni?, Zer aldatuko zenuke?, Zer jarriko zenuke?,

Zertan gastatuko zenituzke 200.000 euro???

Baaaa... orain, erabaki dezakezu!!!! Bota zure proposamena!!! Nola?, AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN bidez.

### - Zer da aurrekontu parte hartzaile bat?

200.000 euro aukeran jartzen dizkizuna da, diru hori gazteentzako non eta nola gastatu erabaki dezazun.

### - Nork parte hartu dezake?

16 eta 30 urte bitarteko gazteek.

Epea: urriak 19.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Webean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## BA AL DUZU ZALANTZARIK? SEXU HARREMANEI BURUZ, ANTISORGAILUEN INGURUAN...? EZ ZAITEZ LOTSATIA IZAN !!!!!!!!!

Urriak 14: " Harreman afektiboak eta bikotearenak". Tailer hauek bi hilean behin egingo dira.

**Sexu AHOLKULARITZA:** Psikologo-sexologo batek erantzuna emango die zure zalantzei, hilaren azken ostiralean, 17:00etatik 19:00etara !!!

DOAKOA eta KONFIDENTZIALA ZATOZ IGAZTERA!!! CBANn gaude, -1 solairuan.

"EGIN EZAZU GALDERA"

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webaren bidez, emailaz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org), telefono hauekin: 943 505 444 edo 943 505 440, whatsapppez: 607 771 173.

## GAZTEARTEAN: DISEINUA, SORMENA, SUKALDARITZA, ARGAZKIGINTZA... ETA ASKOZ GEHIAGO

## gazte ARTEan

Hemen dituzu GazteARTEan programak antolatutako proposamenak 2016ko irailetik abendura.

**Lekua:** Martindozenea Gaztelekua (Elizatzko hiribidea, 18, Irungo La Salle ikastetxearen ondoan).

**Prezioa:** Tailer guztiak doan dira.

**Izen-emateak:** IGazte, [www.irun.org](http://www.irun.org) web orrian eta Martindozenea Gaztelekuan.

**"Paperezko etxetxoak" None Super Heure eraikin enblematikoen maketagitza**

Jone Lizarralderen eskutik.

**Data:** irailak 16 - urriak 15.

Sorkuntza irekiko egonaldia: irailaren 12tik 15era 18:00etatik 20:00etara.

**Tailer librea:** urriaren 15ean 18:00etatik 20:00etara.

**"Ametsetako gizakiak" grafitia eta diseinua**

Mikel Etxeberriaren eskutik.

**Data:** urriak 21 - azaroak 19.

Sorkuntza irekiko egonaldia: urriaren 17tik 20ra, 18:00etatik 20:00etara.

**Tailer librea:** azaroaren 19an, 18:00etatik 20:00etara.

**"Marc pe" ilustrazioa**

Markos Navaroren eskutik.

**Data:** azaroak 25 - abenduak 24

Sorkuntza irekiko egonaldia: azaroaren 21etik 24ra, 18:00etatik 20:00etara.

**Tailer librea:** abenduaren 23an, 18:00etatik 20:00etara.

**Garaiko elikagaiak potoetan sartzea, kontserbatzea**

20 plaza.

Tailer honetan teknika desberdinak erakutsiko dira (ozpinetan, oliotan, azukrean...) eta garaiko elikagaiak nola ontziratu ikasteko aholkuak emango dira, urte osoan aprobetxatu ahal izateko.

**Data:** Asteartetan, urriaren 4tik azaroaren 29ra.

**Ordua:** 18:00etatik 20:00etara.

**Adina:** 13-30 urte bitartekoentzat

**Arropa birziklatzea eta moda sortzea**

20 plaza.

Ikastaro honen helburua da jantziak edo osagarriak dekoratu eta berriak sortzea, oihal edo arropa zaharrak berrerabilita. Tailer horretan honelakoak landuko dira: arropa tindatu, behea hartu, gona bat kamiseta bihurtu, eta gainera, josteko makina erabiltzen ikasteko klaseak emango

dira, beste gauza askoren artean.

**Data:** Ostiralean urriaren 14tik abenduaren 16ra.

**Ordua:** 18:00etatik 20:00etara.

**Adina:** 13-30 urte bitartekoentzat.

**Eguberrietako dekorazioa eta gogogintza. 20 plaza**

Tailer honetan, irudimenaz gain, gogogintzarako teknika desberdinak landuko dira eta produktu desberdinak aurkeztuko dira, era guztietako tartak eta postreak egiteko: cupcake, cakepop, erregeetako opila, trufak, bizkotxoak, euskal pastela, coulant, gofreak, krepeak eta abar.

**Data:** abenduak 7, 13, 20 eta 27.

**Ordua:** 18:00etatik 20:00etara.

**Adina:** 13-30 urte bitartekoentzat.

**Ekintzailetza eta autoenplegu tailerra Bidasoa Biziriken eskutik.**

**Data:** urriak 3, 4 eta 5.

**Ordua:** 18:00etatik 20:00etara.

**Adina:** 13-30 urte bitartekoentzat.

sartu [www.txingudionline.com](http://www.txingudionline.com)-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kizilak, Desdi nuaire metro, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilak, Bidasoa, Real Unib, Tailer guti al Hacia, Poste en forma



RENDAIA IRUN HONDARRIBIA



testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilak, Bidasoa, Real Unib, Tailer guti al Hacia, Poste en forma, Ereala munduan, Kizilak, Desdi nuaire metro

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kizilak, Bidasoa, Real Unib, Tailer guti al Hacia, Poste en forma, Ereala munduan, Kizilak, Desdi nuaire metro, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa

**Irailak 30**

**Zer?** "Walkman" antzezlan. Komeria bisuala, unibertsala eta parte hartzailea.

**Non?** San Juan plazan (CBA inguruan).

**Ordutegia?** 18:00etan.

**Prezioa?** Doan.

**Irailak 30**

**Zer?** "I Love Europe" zerbitzuaren aurkezpena. European zehar mugitzeko eta Erasmus + programaren aukera guztiak ezagutzeko.

**Non?** Martindozenea gaztelekuan.

**Ordua?** 19:00etan.

**Prezioa?** Doako sarrera.

**Urriak 1**

**Zer?** XIX.mendeko Irungo gotorleku liberaletatik ibilaldia (Carlos Rilova historialariarekin).

**Ordua?** 8:00.

**Non?** Irteera San Juan Harria plazan.



### HEGAZTIEN NAZIOARTEKO EGUNA (TXINGUDI EKOETXEA)

**Noiz?** Urriak 1-2.

**EGITARAUA:**

**URRIAK 1, LARUNBATA:**  
Euskadiko II.Ornitologia Maratoia. Ahalik eta hegazti espezie gehien identifikatzea da helburua.

**URRIAK 2, IGANDEA:**  
Ate irekietako jardunaldia Txingudi Ekoetxean.

**Ordutegia?** 10:00-14:00.

**Non?** Plaiaundi Parke Ekologikoa. Txingudi Ekoetxea.

**Prezioa?** Doan.

**Urriak 6**

**Zer?** Bertso Gaua, Irunabar bertsoaren bilgunearen eskutik.

**Ordua?** 19:30.

**Non?** Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan.

**Prezioa?** Doako sarrera.



**Urriak 5**

**Zer?** Hitzaldia: "Autoestimua eta asertibitatea: bitxilorea hostokatuz".

**Ordua?** 17:00.

**Non?** Argoiak Kultur Elkar-tean (Uztapide bertsolaria, 6).

**Urriak 14**

**Zer?** Kontzertua: Mikel Azpiroz.

**Ordua?** 20:00.

**Non?** Oiasso Erromatar Museoan.

**Prezioa?** Doako sarrera.



Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN **+34 669 408 705**

info@ekarinmobiliaria.com [www.ekarinmobiliaria.com](http://www.ekarinmobiliaria.com)

### PRIMERAKO AUKERAK

<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Irun Elizabetxo</b> Azalera 65 m<sup>2</sup>, 2 gela, berriagoa, egongela, sukaldaria, saloi 1, berokuntza, loggia, bilera eta trasteroa.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 02171 <b>99.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Irun Meak</b> Azalera 57 m<sup>2</sup>, 2 gela berriak, berriagoa, egongela, sukaldaria, bilera, berokuntza, loggia, bilera eta trasteroa. Di apantatuta berritu.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 4572 <b>125.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Behobie</b> Azalera 50 m<sup>2</sup>, 2 gela, berriagoa, egongela, sukaldaria, berokuntza, loggia, bilera eta trasteroa. Hutsarekin pisua (garaia) gela.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 04511 <b>135.000 €</b></p>
<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Irun Urdanibia</b> Azalera 90 m<sup>2</sup>, 3 gela, berriagoa 1. solairu 1, egongela, sukaldaria, 2 haitz bali, opulenta. Lasterreko pisua (garaia) gela.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 04502 <b>200.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Irun Oloberrin</b> Azalera 80 m<sup>2</sup>, 3 gela, berriagoa, berriagoa, egongela, sukaldaria, berokuntza, bilera eta trasteroa. Berriagoa, berriagoa.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 04520 <b>250.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Pisua salgai Irun Kolon</b> Azalera 70 m<sup>2</sup>, 2 gela, 2 berriagoa, egongela, sukaldaria, berokuntza, loggia, berokuntza eta 41 m<sup>2</sup> bilera.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 03597 <b>210.000 €</b></p>
<p style="font-size: 8px;"><b>Etxea salgai Irun Pulena</b> Azalera 120 m<sup>2</sup>, 4 gela, 2 berriagoa, berokuntza, egongela, sukaldaria, 2 berokuntza, gas berokuntza, berokuntza, berokuntza eta bi kobentzako garaia.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 03822 <b>399.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Lokala salgai Irun Juan Arana</b> Azalera 33 m<sup>2</sup>, eta 41 m<sup>2</sup> solairu, berokuntza, berokuntza eta berokuntza. Lokala oso konfortatua.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 04523 <b>175.000 €</b></p>	<p style="font-size: 8px;"><b>Etxea salgai Lesaka</b> XXII mendeko etxea errenovatu. Azalera 300 m<sup>2</sup>, 4 gela, 2 berriagoa, berokuntza, berokuntza, berokuntza, berokuntza, berokuntza eta garaia.</p> <p style="font-size: 8px;">Ref: 04530 <b>499.000 €</b></p>

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN



asistencia  
familiar 24



Etxez etxeko laguntza · Ospitale-akonpainamendua  
Etxe eta umezain zerbitzua · Prestakuntza ikastaroak  
Telelaguntza · Zentro geriatrikoak



**943 10 73 56 - 670 37 21 47**

**“Zure lasaitasunerako, egun osoan zehar zu zainduz”**

Colon Ibilbidea, 271º - Of.3 - 20302 Irun (GIPUZKOA)

**[www.asistenciafamiliar24.com](http://www.asistenciafamiliar24.com)**